

LA SALLE IKASTETXEA PROIEKTUA RUMBEK – HEGO SUDAN



TESTUINGURU OROKORRA

- ◆ La Salle – Rumbek Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea herrialdea gerratean sartua zebilen garaian eraiki zen. Gaur egun nolabaiteko bake eta egonkortasun egoeran dira, inguruko nekazarien arteko gatazkak eta liskarrak salbu.
- ◆ Horrekin batera, eskolaren garapenak aurten COVID-19ren ondorioak jasan ditu .
- ◆ Pandemiak, eskola-jarduerak eteteaz gain, kalte handia eragin dio egoera ekonomikoari: pertsonen %80 pobrezia-aren mugatik behera aurkitzen da.

IKASTETXEA GAUR EGUN



- ◆ Horrela izan arren, eta ia bi urtetan eraikitzen jardun ondoren, ikastetxeak gaur egun **153 ikasle** ditu, eraikin berriak erabiltzen dituzte eta irakasle-talde egoki bat du.





- ◆ 2020ko urtarrilean amaituta zeuden bi eraikin, 8 ikasgelekin, ikasleak 2020ko martxoan hasteko.



PANDEMIAREN ERAGINA ESKOLA-JARDUERAN



- ◆ Covid-19 herrialdera iritsi zela-eta ikastetxeak itxi egin zituzten martxoaren 21ean eta harrez geroz itxita jarraitzen dute.
- ◆ Gobernuaren aurreikuspena 2021eko otsailean hastea da, ikasturte berriarekin batera.



Ikastetxean gaur egun erabilgarri diren azpiegiturak

- ◆ Ikasgela eraikinak (8) 320 ikasleentzako edukierarekin
- ◆ Ikasleentzako lotegia
- ◆ Irakasle eta administrariarentzako egoitza
- ◆ La Salleko Anaien elkartearentzako egoitza



ERAIKITZEN ARI DIREN AZPIEGITURAK



◆ **Kafetegia:** bukatu berria

◆ **Bainugela eraikina:** ia bukatu eta lotegietatik kanpo kokatua

◆ **Irakasleen gela berria:** 2021eko ikasturtea hasi baino lehen bukatua egotea espero dute

Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak hezkuntza-zentroan



◆ Zentroaren autofinantzaketaren zatitzat sustatzen dira nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak, aldi berean, ikasleen prestakuntza-interesen alderdi direnez, beraien nekazaritza-kulturaren barnean kokatzen baitira.

◆ Lursail bat horretarako erabiltzen da; orain arte 25 hektareetan landu izan dira:

Kakahueteak, artoa, sorgoa, barazkiak eta txirimoia, guaiaba, limoi eta laranja frutarbolak.

◆ Hazten dituzte, halaber, zerriak, ahuntzak, ardiak, oilaskoak eta ahateak. Behi-aziendak kanpoan uzten dira klanen liskarrak ekiditeko.

Etorkizuneko beharrak eta zenbait egoera



- ◆ Berehala gehitu behar dira barnetegiko plazak, 50 ikasletik 80ra pasatzeko.
- ◆ Mutilek arrisku handiak dituzte ikastetxera etortzeko bidean: indarkeria mendekuengatik eta heriotza-arriskua ere taldeen arteko borrokengatik.
- ◆ Oraingoan, bigarren hezkuntza neskei irekitzea gelditua dago, indarkeriaren arrisku handi honengatik, beraien jazarpen eta bortxaketa-arriskua gehitzen delarik. Bortxatua izan den neska edo ezkongabe haurra izan duena mespretxatua da eta prezio baxuan saldua gizon helduei

La Salle - Rumbek Proiektua



LA SALLE BIGARREN HEZKUNTZAKO PROIEKTUA SORTU DA RUMBEK-EN



Eskerrik asko!

